

Ikusizko arteetatik musikara eta buelta

María José Belbel-ek Begoña Muñoz artista, kantari eta DJa elkarrizketatu du, Soytomboi proiektuaren antolatzaileetako bat

María José Belbel: Nolakoa izan zen zure ibilera Arte Ederren fakultatean, nolakoak Holandan eta New Yorken egindako egonaldiak, musikatik artera egindako jauzia eta DJ gisa lan egitea. DJ gisa profesionalizatzea. Musikaren eta ikusizko arteen arteko elkargunea.

Begoña Muñoz: Fakultatera independizatzeko itxaropen handiz joan nintzen, eta imajinatuz leku sortzailea, zoroa, artistikoa izango zela, baina ilusioa galarazi zidan. Hala ere, fakultatetik irten ondoren, Arteleku bezalako esparruetan giro gogotsu eta eskaini baten barruan ikusi nuen nire burua eta han aurkitu nituen lehenago imajinatzen nituen bizi guztirako adiskidetasun artistiko horiek. Holanda nire denboraldirik profesionalena izan zen eta nire internazionalizazioa ekarri zuen. Aldi berean, konturatu nintzen ingurune profesionalak ez zirela nire lekua, ez zitzaidan joko hori gustatzen, bai, ordea, eta asko, bidaiatzea eta jende interesgarria, beraien bizitza-estiloa ezagutzea. Baina Artea Eliza bezala ikusten hasi nintzen, erakusketak ikustera joatea tenplu batera joatea zela iruditzen zitzaidan eta hitzaldietara joatea, hizlariei entzutera, gero festetan bekatu egiteko. NY izugarri gustatu zitzaidan, jende zoragarria ezagutu nuen eta bertatik itzultzean, xederik gabeko nire musika-proiektuari ekin nion, azkenean pentsatzen nuena baino urrunago eraman ninduen. Disko bat plazaratu nuen eta nire bizitzan musika maila profesionalean ere sartu nuen.

dig me out

Orain Funky Projects-en ari naiz lanaldi osoan eta hori dela-eta artea eta musika hobby bihurtu dira niretzat, dudan aisia-denbora urriarengatik. Gustuko dudan bizitza-estiloa mantentzen jarraitzen dut, beraz, ondo doakit. Nire proiektuetarako, bideo, elastiko, festa eta abarretarako finantziazioa bilatzen dut eta noizean behin erakusketak egiten ditut, batez ere, Holandan.

MJB: Konta al diezadakezu nolakoa izan zen zure lehenengo diskoa plazaratzeko prozesua?

Begoña Muñoz: Guztia nire oso estilokoa zen performance bakun batekin hasi zen, niretzat obra bat egitea zenaren elementuren bat manipulaturik. Kasu honetan kontua zen beste artista bat izatea, artean izan beharrean, musikan. Consonni-rekin prozesua oso luzea eta oso dibertigarria izan zen. Hasieran oso galduta geunden eta imajina dezakezun prozesu naifenetik, esparruko jendearen aholkuak jasoz, batzuetan onak eta beste batzuetan izugarri txarrak, produktu bat edukitzea lortu genuen. Hauxe, lehenengo hitzorduan kokatu genuen eta akordio bat lortu genuen Subterfuge Records-ekin.

MJB: Abestiak irteten ziren moduan irteten ziren, nik, nire ikuspuntutik, eskaini nezakeen lehengaia izugarri kaskarra zen, hasieran ez nuelako ulertzen lana lankidetzaren baten emaitza izango zela. Beraz, konturatu nintzen, proiektuan parte hartu zuten alderdi guztiak funtsezkoak zirela, ez kaskarrak.

Begoña Muñoz: bakarrik aritu naiz. Orain musikaren, DJ-lanaren, festen, artearen, diseinuaren, enpresaren eta interesgarriak iruditzen zaizkidan beste proiektu batzuetan

dig me out

parte hartzearen hibridazio-prozesu batean murgilduta nago erabat.

MJB: Dirudienez proiektu antolatzaile eta dinamizatzaile ezberdinetan ari zara lanean: sarek, web orriak, blogak, flyer-ak eta bideoak sortzen. Horri buruz ezer gehiago kontatu al zeniezaguke?

Begoña Muñoz: Nire ametsa zerbait antolatzea da eta hori garatzen joatea. Komunitate-sentipen bati sortzea eta hori bere horretan balio bat eta garapen-tresna bat izatea. Interneten bidez antolaketa-egitura horien azkar zabal daitezke. Nik, pertsonalki, jende gauzatzailearekin egon behar dut, talde batekin, nire ideiek aurrera egiteko. Nire alderdi guztiekin, nire kabuz mugitzen naiz, bideo edo abesti bat egiten dut, edo DJ gisa aritzen naiz, edo arte-saltsa batean sartzen naiz, zehazki inorentzat ez dena eta mundu osoarentzat dena, izan ere, uste dut jendeak gozatu egingo duela eta horrelako gauzak partekatu daitezkeela. Ez dakit ulertzen den.

MJB: Hitz egin diezaguzu Soytomboi proiektuari buruz.

Begoña Muñoz: Ausazko neska-talde bat gara, nahiko independenteak eta "deskoadrilatuak", eta festen inguruan zerbait ezberdina egin nahi genuen. Norbere buruz adieraztea eta beste pertsona batzuekin harremanetan jartzearen ideia ostalaritza-negozioa baino garrantzitsuagoa zen zerbait, hori baita gehienetan gertatzen dena. Nesken festa gehienetan musika komertzialegia da, beraz, erabaki genuen guk gustuko dugun musikarekin festak antolatzea eta, pixkanaka, horren inguruan geruza gehiago eraikitzen joatea.

dig me out

Beraz, gaua dibertigarriago bihurtzeko gauzak pentsatzera behartuta gaude. Tomboi-k jendearekin harremanetan jartzeko, mezuak bidaltzeko, jendea ezagutzeko, Bilbotik giroa sortu eta egoera aldatzeko balio digu. Gainera, Tomboi-k sudur puntan jartzen zaiguna egiteko balio dugu, ez dago kalitate-kontrolrik. Oso bilera dibertigarriak antolatzen ditugu eta flyer-ez, bideoez, posterrez eta ustekabeko gauzak antolatzeaz gu geu arduratzea gustatzen zaigu, ahal dugun neurrian. Gure burua ezagutara ematen dugu eta jendearekin harremanetan jartzen gara myspace.com/soytomboi eta fotolog.com/soytomboi webguneetatik.

Soytomboi festak gure modura festa handi bat dira.

Bagenekien zerbait egingo bagenu ondo egongo litzatekeela, jendeak eskertuko lukeela eta berdin zitzaigun 30 pertsona edo 300 etortzea. Tomboi festa berri bati buruz pentsatzen hasten garenean, zera pentsatzen dugu: Nola sortuko dugu iskanbila? Eta itzala utziko duten gauzetan pentsatzen dugu, egiten ez diren gauzetan, festei ez dagozkien gauzetan, guri ikustea edo egitea gustatuko litzazkigukeen gauzetan. Guri garrantzitsua eta askatzailea iruditzen zaiguna da egiten duguna. Ez dugu ezertan geldituta geratu nahi, nahiz eta Soytomboi-k jarraitutasun bat edukitzea nahi dugun, eraldaketa bat jasatea baina ez geratzea. Formulak errepikatzea gustuko ez duen neska talde bat osatu dugu, beraz, egun osoa batera nahiz banaka bururatzen zaizkigun gauzei ongietorria ematen igarotzen dugu. Ideia-zerrenda luzea dugu alde batera utzita, horiek egiteko aukera edo unea iritsi arte. Batzuetan ezin dut itxaron eta dena kontatzea gustatuko litzaidake, baina hobe da sekretua izatea, izan ere, gero ezusteak efektu zoragarria du eta batera barrez lehertzen gara.

dig me out

Antolaketan ez gara oso trebeak, baina lanean ari gara horretarako. Gutako inor ez da horretan jarduten %100 eta mota askotako konpromisoak ditugu gure bizitzetan.

MJB: Zein harreman duzue Bilboko testuinguruarekin?

Begoña Muñoz: Bilbon jende zoragarria dago, proiektu apartak dituen. Proiektu horietako batzuekin harremana dut, baina orain nire burutik jaiotzen diren gauzetan murgilduta nago, denborak ez dit gehiagorako ematen-eta.

MJB: Behin zure lanaren performance/aurkezpen bati buruz hitz egin zidaten, takoidun larruzko bota altu batzuekin irten omen zinen... oso modu performatiboan, jendeak zutaz espero zuen irudiaren eta egin zenuen aurkezpen serio eta ortodoxoaren artean fikzio bat sortuz. Horrela, zure lanetako batzuk feminismotik/feminismoetatik edo genero-politiketatik interpreta litezke.

Begoña Muñoz: Bai, noski. Performance horretan nire buruak komunikatzen zuenaren eta nire gorputzak komunikatzen zuenaren artean deskonexio bat sortzen zen bakoitzaren eszenaratzearekin. Ikus-entzuleak taldeka bana zitezkeen: esaten nuena bakarrik ulertzen zutenak, hanketara begiratzen zidatenak eta bi gauzak bateratzen zituztenak. Erabaki bat hartu eta jarrera bat hartu zuten. Bi gauzak bateratzen ez zituztenek, euren begira, ahultasun-egoera batean jartzen ninduten. Orain, kontatzen dudanean dena oso serioa iruditzen zait, baina horrelako zerbait zen. Nire buruan oso eraturako kontzeptuak behar nituen lanak egin ahal izateko. Orain intuitiboagoa naiz.

MJB: Interesgarria da beti plazerretik lan egin duzula pentsatzea.

dig me out

Begoña Muñoz: Bai, baina baita minetik ere, izan ere, zerbait egin nahi izateak eta horretan saiatzeak ahalegin bat eskatzen du eta horrek min ere egiten du, baina gogozko tokian...

MJB: Lanean zerk elikatzen du zure irudimena?

Begoña Muñoz: Intuizioek, ametsek, protestak, elkarlanak...

MJB: Zein iritzi duzu musikaren industriari buruz eta nola lortzen duzue zuen proiektuetarako finantziazioa?

Begoña Muñoz: Nik uste dut musikaren industria oso zabala dela eta gauzarik onena bertan egotea da, zure neurrira. Industria bere horretan oso egituratuta dago eta nik uste orain musikan egoteko moduak badaudela, hori norbere industria bihurtuz. Ez zaizkit interesatzen araututako bideak ezta gauzak iritzirik gabe egitea ere, datorrena datorrela eta edozeren kontura.

Consonni-rekin izan nuen eztabaida famatua hasieran izar bihurtu nahi nindutelako izan zen eta ni horren aurka nengoen erabat!

MJB: Konta al zeniezaguke zertxobait gehiago beste artista (Itziar Okariz, Unai Goikolea), musikari (Madelman, DJ Jawata...) eta abarrekin izan dituzun elkarlanei buruz?

Begoña Muñoz: Gustuko ditut elkarlanak, bai artistekin baita teknikoagoa den jendearekin ere. Proiektu bat partekatzeak dena atsegingarriagoa bihurtzen du. Lehen esan dudan bezala, nire ametsa elkarlanak epe luzea izatea da eta bizitzeko modu bat edo bihurtzea.

dig me out

Jawatarekin, nire bikotekidea denarekin, DJ gisa batera hasi ginen eta horrela ezagutu genuen elkar. Beti izan gara bikote sortzaile bat, ezingo nuke sortzailea ez den harreman bat izan. Jawata duela gutxi hasi da bere ikuskizun-alderdia garatzen eta orain beraz bere ikus-entzule gisa ere gozatzen dut. Egiten duenaren eta bere izateko moduaren zale handia naiz. Orain batera ari gara lanean hezkuntza-proiektu batean; bera irakaslea da.

MJB: Nolakoa izan zen elkarlana Itziar Okarizekin, zure Thanks abestiaren bideokliperako? Eta Olaf Breuning-ekin?

Begoña Muñoz: Itziarrekin lan egin nahi nuen izugarri gustatzen zaidalako egiten duena eta egiteko duen modua. Portugaleteko zubi esekian bideo bat egitea bururatu zitzaidan eta consonni-ri Itziar Okarizekin bideoklip bat egitea proposatu nion. Zubi esekiaren gaia garatu genuen, lurra ez ukitzeko, airean egoteko ideia horrekin. Itziar izan zen gidoi osoa garatu zuena, kontzertuetan rock izarrek beren burua jende artera botatzeko duten moduaren ideian oinarrituz.

Filmazioan gure lagun guztiak egon ziren, irudi guztiak gure lagunek filmatu zituzten eta emaitza zoragarria izan da. Baina ez zuen merkatuteknia diskografikoaren froga erabakiorra gainditu eta, literalki, Subterfuge-era bidali genuenean txantxa bat iruditu zitzaien. Dei egin ziguten galdetuz ea adar-jotze bat zen. Nire amak ohartarazi zidan erakutsi nionean: oso polita, baina hau ez dizute telebistan sekula jarriko. Niri berdin zitzaidan, egia esan, bideoa izugarritzkoa da-eta.

Olaf Breuning-ekin egindako elkarlanari dagokionez.

Azalerako berak egindako nire argazki bat nahi genuelako deitu genion eta tratua izan zen: berak azala egingo zuen nire argazki batekin eta berak Bilbon argazki bat ekoiztuko

dig me out

zuen bere hurrengo erakusketarako. Bilboko kanpoko leku batzuk bidali genizkion eta berak Rontegi zubiko zutabeak aukeratu zituen jende askorekin argazki bat egiteko. Nire lagunei dei egin nien eta egun zoragarri bat pasa genuen Olaf-en argazkia egiten. Okerrena izan zen niri azalerako egin zidan argazkiak ez gintuela batere betetzen. Bera ere ez eta erabaki genuen Olaf-en argazkia erabiltzea baina pailazo-sudurrik gabe. Azala itzela da baina ez dirudi inola ere gaur egungoa eta ez du inola ere diskoaren barruan dagoen ezer ere azaltzen musikari dagokionez. Argazkia utziko dizuet lehen berri gisa argitara dezazuen!! Azalean atera behar zen argazkia... Hauek dira horrenbeste galdera egiteagatik dituzuen sariak!!

MJB: Hitz egin al zeniezadake emakumeek, lesbiana, queer, trans, egindako musikaren egoeraz, edo zuk ezagutzen duzunaz, gune, testuinguru eta antolaketaz? Bereziiki estatu espainiarra interesatzen zait, baina ez hori bakarrik.

Begoña Muñoz: Estatu espainiarretik gehiago gustatzen zait emakumeek edo emakumea bakarlaria soilik ez den taldeek egindako musika. Zuzenagoa iruditzen zait. Tokiko talde eta egitura asko ezagutzen ari naiz myspace-en bidez, esaterako, orain bertan entzuten ari naizen abestia, Voyeur Destroyeur-ena, "Espía de la CIA". Izugarri gustatzen ari zait eta gure hurrengo festara gonbidatu ditugu. Zaletasun berezia dut emakumeek egindako gauzekiko, pentsatzen dut gehiago harrituko nautela eta gauza gehiago kontatuko dizkidatela, eta horrela izan ohi da. Baina ez nago oso egunean hemen eta orain gertatzen denari dagokionez. Donostin cocorosie-ren kontzertu batean egon nintzen Victoria Eugenia, eta ez dakit azaltzen zer egiten duten, ezezaguna den zerbait ikustea bezala da, ikusten duzun arte

dig me out

adierazi ez dena eta erabat txunditzen zaitu, ia palkotik behera erori nintzen. Izugarri gustatuko litzaidake Daft Punk zuzenean ikustea.

MJB: Ba al dago mugimendu edo joeraren bat zugan eragina izan duena, interesa piztu duena edo aipatu nahiko zenigukeena?

Begoña Muñoz: Oro har fast and dirty eredua gustuko dut, hau da, zerbait pentsatu eta egitea dauzkazun bitartekoekin. Hori musikan, artean edo enpresan aplikatuta zirrargarria da. Bere osotasunean oso konplexua eta eratua izan daiteke baina izugarri gogoko dut gauza bakunen adierazpena manipulatu gabe egotearena.

MJB: Zein proiektu edo bestelako gauza interesatzen zaizkizu nazioarteko testuinguruei dagokienez?

Begoña Muñoz: GLU bezalako argitalpenak, informazio-iturria dira beste emakume batzuen proiektuak eta bizitzak ezagutu eta horietan kuxkuxeatu ahal izateko.

MJB: Ikusizko arteen eta musikaren arteko elkargunearen espazio hau, definizioetatik haratago, norantz doa?

Begoña Muñoz: Ez dakit... Nik uste dut norabide egokia daramala, besterik gabe. Hobetu behar dudana da nire inguruan estresik ez sortzearena eta gozatzen jakitea.

MJB: Eskerrik asko elkarrizketarengatik.

www.begona.com

www.myspace.com/soytomboi

www.fotolog.com/soytomboi